



Buztinetik boligrafoa



Administrador
Fincas
Colegiado

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritza
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutakoen erreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza

24 ORDUKO ZERBITZUA

Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 ordutan

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

Etxea dekoratuta...

Nagore
Goikoetxea
mokka
INTERIORISMOA
Bidebarrieta, 24
943 53 06 37




Tasazio zuzena + Home staging + Argazki aproposa + Merkaturatze egokia + Salmenta ziurtatua

Goizane
Goikoetxea
IBAI ONDO
INMOBILIARIA
Bidebarrieta, 24
943 20 12 13



AURRETIK

MOKKA INTERIORISMOko NAGORE eta IBAIONDO INMOBILIARIAko GOIZANE ahizpek ezagutza eta indarrak batu dituzte eta, Home Staging salmentarako teknikan trebatu eta gero, ikasitakoa praktikan ipini dute, etxebizitzaren salmentan emaitza hobekien lortzeko asmoz. Izan ere, gure artean oraindik nahiko ezezaguna izan arren, Home Staging izenez ezagutzen den kontzeptua Amerikako Estatu Batuetan orain dela 30 urte garatzen hasi ziren eta, marketing teknika honekin lortzen ari diren emaitza onak ikusita, Europan, Erresuma Batua, Suedia eta Frantzia moduko herrialdeetan aplikatzen hasi dira poliki poliki, hain zuzen ere, izandako arrakasta errepikatze asmoz. Eibarren eta inguruko herrietan hori lantzen aitzindariak dira eta honez gero hasi dira euren lan eta ahaleginaren emaitzak jasotzen.



AURRETIK



ONDOREN

- Zer da Home Staging-a?

Ingelesetik itzulpen zuzena eginez gero, etxebizitza eszeneratu edo taularatu esan nahi du. Baina, esan nahi horretatik haratago, Home Staging-a marketing teknika bat da eta, hori aplikatuta, etxebizitza bat ahalik eta lasterren eta preziorik onenean saltzea litzateke lortu nahi den helburua.



ONDOREN

- Eta nola lortzen da hori? Zertan datza horren arrakastatsua izaten ari den marketing teknika honek?

Home Staging-ak etxe bat errezago saldu ahal izateko oinarritzko jarraibide batzuk ezartzen ditu: saldu beharreko etxea despersonalizatzea, ordenatzea, garbitzea, hustea, konpontzea, dagoen tokia antolatzea... horiek guztiak zaintzeak garrantzi handia dauka eta azken emaitza baldintzatzen dute. Etxebizitzaren salmentaren inguruko ikerketen arabera, gaur egun etxea erosi nahi dutenen %80 interneten begiratzen dute lehenengo, beste inora jo baino lehen. Beraz, etxe bila dabilen norbait argazkiak begiratzen hasi eta, irudiak bisualki erakargarriak egiten bazaizkio, beti izango da errezago interesa azaltzea eta zuzenean ikustera joateko animatzea. Salmentei lotutako datuek argi erakusten dute lehen inpresioa ona izateak berebiziko garrantzia daukala. Azterlan eta estadistika ezberdinetan jasotakoaren arabera, etxe bat ikustera doanak lehen 90 segundotan erabakitzen du erosiko duen ala ez, nahiz eta kontziente ez izan. Adituek diotenez, etxe batean sartzen garenean ailegatzeko zaizkigun estimulu eta sentsazioek gure subkontzienteari eragiten diote eta modu batean edo bestean jokatzea bultzatzen gaituzte.

- Eta nolako da zuek nahi duzun emaitza hori lortzeko egiten duzun lana?

Saldu nahi den etxeak dauzkan indarguneak azpimarratzen eta egon daitezkeen ahulguneak minimizatzen ahalegintzen gara, horretarako Home Staging teknikaz baliatuta. Kontua ez da akats edo hutsuneak ezkatzea, baizik eta horiek konpontzea.

Eta etxea txukundu eta jantzi arren, ez dugu dekoratzen: etxea erakargarriagoa bilakatzeko beharrezkoak diren altzari, osagarri eta apaingarriak ipintzen ditugu, beti ere neutraltasuna jomuga dugula eta, gainera, ahalik eta diru gutxien gastatzen. Azken batean, asmoa etxea ikustera doan edozeinentzat erakargarria izatea eta, beraz, erosteko aukerak areagotzea da. Eta honekin hasiberriak izan arren, teknikak benetan funtzionatzen du, Home Staginga landu dugun etxeak berehala saldu ditugu eta.

...errazago saltzen da

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Ziklo berri baten atarian –

Joan zen igandean, eibartarrok ez genuen huts egin Gure Esku Dago-k jarritako erronkari. Zer izan eta zer eraiki nahi dugun aldarriaren inguruan, giza katea osatzu herritar asko batu ginen Eibarko kale-etan zehar. Egintzak zailtasunak zituen arren, eibartarrok ahaleginari esker 1.800 katebegi osatu genituen ziklo berri bat irudikatuz; bizikidetzaren, burujabetzaren eta erabakiaren "aro berria", alegia. Aro berri horretan, herritarren borondate demokratikoa izango da, oinarri eta muga bakarra. Euskal Lurraldeetan esparru demokratiko sendo bat eraikiz, eta aldi berean, burujabe erabaki ahal izateko baldintzak sortuz.

Hortaz, beste urrats bat eman dugula esan dezakegu. Hala ere, bidea ez da igandeko giza katearekin amaitu, helburua herri honek erabaki ahal izateko tresnak eskuratzea baita eta horretarako politikopoliki, baina gelditu gabe urrats berriak ematen jarraitu beharko dugu.

Amaitzeko, gutun honen bidez, igandean giza katean parte hartu zenuten guztioi gure esker ona azaldu nahi dizuegu eta bereziki antolaketa lanetan laguntza eskaini zeniguten guztiei. Eskerrik asko guztioi, erronka honetan bidelagun paregabeak izan zaretelako.

Eibarko Gure Esku Dago

Giza Katearen eguneko **zenbaki sarituak rifa**: 730 eta 606 / Ordezkoak: 330 eta 376

– Urkiko jaietan kirola eta pertsona guztien integrazioaren alde –

Urkiko jaiak igaro berritan, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure auzora bertaratu zireten guztioi, eta ekintza ezberdinetan parte hartu duzuenoi.

Aurten ere pilota partiduetan eta Txiki-krosean umeez kirola egiteko aukera izan dute, nagusiek berriz X. Galdaramiño igoeran saltaka ibili dira ATZEGIkoen martxarekin batera.

Antolaketa lanetan lagundu diguzuen guztiei mila esker: Eibarko Udala (udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, Eibarko Klub Deportiboa (mendia

eta atletismo sailak), DYA, Nemark, Eskarne jate-txea, Salaberria bitxidenda, Garajes Garcia, Lacturale, Eroski, Coca-Cola, Kirolprobak, Radio Marca eta ...eta kitto! astekaria.

Urtero legez eskertza luzatu nahi diegu bolondres guztiei, beraiek egiten duten lanean oinarritzen baita Urkin sortzen dugun auzolana. Eskerrik asko!

Ondo izan eta hurrengo urterarte!

Galdaramiño igoera / Urkiko Jai Batzordea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MANTXU.- Beso edo esku bata falta duena. Gaztelarazko *'manco'*. *"Oin batzuk esaten dabe Cervantes ez ei zala mantxua"*.

MARA-MARA.- Elurra edo euria etengabe egin. *"Gure txixixa jaixo zan egunian edurra mara-mara egitten zeban"*.

MARA-MARA NEGARREZ.- Negar batean. *'Llorando a lágrima viva'*. *"Gizato haundixa izan arren, mara-mara negarrez egon zan"*.

astean esanak

"Irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31ra arteko tarte horretan 70 urtetan Euskal Herriak bizi izan duen ikasturte euritsuena izango dugu, geratzen zaizkigun bi hilabete eta erdian ez dugulako hiru egun jarraian izango bero naturala, zeru garbia eta ipar garbiarekin. Uda desastrea izango da, euri askorekin eta azarotik izan dugun antzerako eguraldiarekin. Belarra bai, mordera izango da, baina eguzkiaren bitaminik gabe, zertarako? Frutak ere zaporerik apenas izango duen. Haizea, ura eta harriskorra ez da faltako. Galdetu abereei, horiek ondo dakite; ez dago halako meteorologorik"

(JAZINTO SAGARNA, GORBEIAKO ARTZAIA)

"Kirol arloan gaur egun neskengan ahalduz gertatzen gertatzen da, mutilengandik banandu egin behar dira, eta hor landu. Neskek eta mutilak berdintasunean heziko bagenitu, ezberdintasun horiek ez litzateke sumatuko. Iaz txostena egin genuen partiduetan mistoak behatzen. Datuek zioten neskek mutilerik pasatzen zirela baloia, mutilek mutilei, neskek neskei eta ezer ez. Gola egiteko ekimena beti mutilek zuten: gizarte eskemak erreproduzitzen ditu. Kirol esperientzia landu behar da, talde esperientzia, emakumeek bizi behar dute hori, beraiek. Eta mistoa bada, ona denak bakarrik jarraituko du. Hor egongo da Eibarko bat, Atarrabiako beste bat, eta gurasoak haiek autoan eramaten"

(AINHOA AZURMENDI, KIROL-AHOLKULARIA)

"Euskal teatroa atzeko atetik iristen da antzokietara. Normaltasun eta berdintasun faltan baten gainean ari gara lan egiten. Oso nabarmen ikusten dugu euskaraz lan egiten dugun momentutik ez gaudela inolaz ere baldintza berberetan. Arte eszenikoan esparrua oso erdararen neurria egituratua dago, besteak beste, Hego Euskal Herriko eszena dagoelako Espainiar estatutaren eredu eta irizpideen arabera muntatua. Ez soilik hizkuntza aldetik, baizik eta nola kudeatzen diren antzokiak eta abar: diru laguntzetan zer lehenesten den, zer ez... Hemengo errealitatea ez da aintzat hartzen: euskal teatroak etengabe aritu behar da ahaleginak egiten zirkuituak topatzeko antzokietara iristeko"

(OIER GUILLAN, ANTZERKIGILEA)



IKER ARANBERRI

Gure Esku Dago (?)

Aurreko domekan ospatu zen Gure Esku Dago ekimenaren giza katea, 200dik gora kilometrotan Donostia eta Gasteiz eskuz-esku lotu zituen ekitaldi aldarrikatzailea. Herri honek (edozein herrik) izan nahi duena erabakitzeke daukan eskubidea aldarrikatzea zen helburua, modu alai eta baketsuan, festa giroan. Erabateko arrakasta izan zen, antolatzaileen aburuz. Ekimenaren aurkakoek berriz "giza kate baten orde, harresi bat eraikitzea" (Borja Semper, PP) salatu dute, besteak beste. Han izan nintzen ni ere, nola ez, gainontzeko katebegiekin batera, herri honen etorkizuna erabaki nahi nuela aldarrikatuz, exijituz, eskatuz, erregutuz. Gure esku dagoela sinetsita.

Garai asaldatu hauetan Katalunia dugu ispilu maiz. Ez dakit azkenean beren aldarrikapenak gauzatuko ote dituzten, baina bidea egiten dihardute. Eta bide horretan herritarrek bidaide apartak dituzte: agintariak, Generalitateko lema eskuen artean daukatenak. Zerbait lortuko badute beren eskuetan dagoena egiten ari direlako izango da: gizarte zibilak bere aldarrikapen, nahi eta desioak argi erakutsi dizkiete agintariei eta biek batera, beren esku dagoena egiten ari dira.

Hemen giza kateak mezu argia helarazi die agintariei, beste behin ere. Baina Jaurlaritzako lema esku artean daukatenek zer esan diote herriari? Bada, Eusko Jaurlaritzako gobernu kontseiluak ez diola "segundo bat bera ere eskaini giza kateari" (Josu Erkoreka, Jaurlaritzako bozeramailea).

Gizarteak bere esku dagoena egingo du, noski. Baina bidaideak, konplizeak, babesleak eta laguntzaileak eduki ezean, ezer gutxi lortuko du esku ahurra erakutsiz soilik.

35 urtiak bete dittuala-eta vending-lehiaketia antolatu dau Urkotronik-ek

Eibarko Urkotronik enpresak aurten 35 urte bete dittuala eta, 'Urkotronik Vending Lehiaketia' antolatu dabe.

Osasunarekin eta jasangarritasunarekin loturia dakan ekimena Euskadiko Lanbide Heziketako zentruarekin lankidetzan antolatu dabe, "ekintzailletza babestu, enplegu modu barrixak sustatu eta Euskadiko ikaslien talentu sortzaillia" saritzeko asmuarekin. Lehiaketaren barri emoteko Miguel de los Toyos alkatiak, Carlos Abad Urkotronikeko Aholkulari-Ordezkarixak, Alex Arriola, SPRIren zuzendari orokorrak eta Imanol Urreisti, Armerixa Eskolako zuzendarixak eguztzen egindako prentsaurrekuan azaldutakuaren arabera, lehiaketa bikoitza izango da: "Alde batetik, herritar guztieri zuzendutako lehiaketia dago eta, bestetik, lanbide heziketako ikasleri zuzenian bideratutako sariketa zihetza". Izan be, vending hobea zelan irudikatzen daben aurkeztera ausartzen diran ikasliendako sari potolua emongo dabe: proiektu onenak 1.000 euroko sarixa jasoko dau eta, horrez gain, irabazlieri Urkotroniken praktikak egitteko aukeria emongo detse. Proposamenak aurkezteko epia uztaillaren 31ra arte egongo da zabalik. Lehiaketari buruzko argibide guztiak, barriz, urkotronik.com/lehiaketa helbidian topauko dittuzue.



asteko
1.156,36
 datua

eurokua da eibartarron batz besteko pentsiñua. 8.240 dira gure herrixan pentsiñua kobratzen dabenak gaur egun. Bestalde, jubilatuen kopurua 5.345ekua da, eta kobratzen dabena, kasu horretan be batz bestekua, 1.322,41 euro. Gipuzkuan dagozen 120.358 jubilatua, batz beste, 1.295,34 euro kobratzen dabe.

Tamaiña haundiko hondakiñak hobeto birziklatzeko kanpaiña barrixa martxan da

Debabarreneko Mankomunidadeiak kanpaiña barrixa ipiñi dau martxan, **tamaiña haundiko hondakiñak** hobeto birziklatzia eta Garbiguniaren erabilleria hobetzia lortzeko asmuarekin. Horretarako, eskualde osoko etxietan informaziño liburuxka bat banatu dabe, bestiak beste edukiontzixetan sartu ezin leikiazen hondakiñak biltzeko doako zerbitzua daguala gogoratzeko. Horrekin batera, **tamaiña haundiko hondakiñak** Azittaingo industrialdian dagan Gar-

bigunera eruateko aukeria be badaguala emon dabe aditzera. Horretarako ordutegixa, barriz, honako hau da: astelehenetik barixakura bittartian 09:04etatik 12:56etara eta 16:04etatik 18:08etara eta zapatuetan, barriz, bakarrik goizez zabalzen dabe.

Edozelan be, Garbigunera juateko aukerarik ez dakenak kalian laga leikie kontenedoretara botatzeko haundiegixak diran hondakiñak, hori bai, alde z aurretik 943 700 799 telefonora deittu eta abisua laga



eta gero. Mankomunidadeko bihargiñeri jaso biharreko hondakiñak nun lagako diran argi azaldu ostian, kontenedorien aldamenian laga biharko dittue, Eibarkuen kasuan astelehenean, 20:30xetatik 21:30xetara bittartian.



Hondarribiko Mintza Egunian.

Ikasturtia agurtzeko plan biribilla euki dabe Berbalagunak

Mintzapraktika lantzeko ...eta kitto! Euskara Elkartiak martxan dittuan Berbetan programan parte hartzen dabena ondo baiño hobeto agurtu dabe ikasturtia. Aurreko asteburuan Berbalagun batzuk Hondarribiko Mintza Egunian egon ziran, Euskal Herriko beste herri batzuetatik jua ziran mintzalagun morduearekin batera eureri eskindutako jaixan parte hartzen. Eibartarrak ez dabe sekula holako egunian kale egitten eta aurten be talde politta alkartu zan. Gaiñera, antolatzailliak lagunartian euskeraz berba egin eta ondo pasatzeko sekulako plana preparau zetsen jaixaren aitzakixarekin: hamaiketakua, Hondarribia ezagutzeko ibilbide gidatuak eta tren berdian ibilbide panoramikua, bestiak beste. Eguraldixa eta euskeria lagun zittuela, primeran ibilli ziran Eibartik juandako ordezkariak. Baiña, horrekin bakarrik ezin kon-

formatu eta, badaezpada, bigarren agur bat antolatu eben aste honetarako, oin-guan herrixan bertan: martitzen arratsaldian sekulako ambientia egon zan ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalian, ikasturte amaieria ospatzeko preparau eben merendolan.



autuan

AHAL DUGU-REN IDAZKARITZA BARRITZEN

Podemos Eibar Ahal Duguk herri maillako idazkaritza orokorra barrizatzeke parte-hartze prozesua daka martxan eta bi hautagaik aurkeztu dabe euren burua Eibarko taldia gidatzeko: Isabel Fernández Pejenaute eta Guillermo Manson Muniozguren. Alderdikidiak euretako bateri botua emoteko deittuta dagoz eta horretarako azken eguna astelehena izango da.

GURE BALIOAK SARIRAKO HAUTAGAI BILLA

Debegesak Gure Balioak sarixen 9. ediziñorako hautagaixak aurkezteke epia zabaldu dau. Sariduna hautatzeko proposamenak uztaillaren 15era arte jasoko dittue eta herritar guztiak izango dabe euren eritziz sarixa jasotzia merezi daben hautagaia aurkezteke. Sarixaren inguruko azalpen guztiak eta hautagaixa aurkezteke formularixua debegesa.eus webgunian eskuratu leikez. Informaziño gehixago nahi dabenak 943 82 01 10 telefonora deittu edo balioak@debegesa.eus helbidera idatzi leike.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra ☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia BERRIA
9) Psikiatria	18) Psikologia BERRIA

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Diagnostikatu bariko gaixotasuna daken umieri buruzko dokumentala

Jairo Berbel elgoibartarrak **laster aurkeztuko daben dokumental labur bat egitten dihardu**, Eibarko AFESD diagnostiko bariko gaixotasuna daken famelixen alkartiak egitten dabena islatzeko asmua-rekin. Horretarako, "Grande cuore" izenburua dakan ikusentzunezkuan, Ibai ume eibartarraren bizitzako momentu diferentiak jaso dittu, dokumentala ikusten dabeneri famelixa honen errealidadia gertatzeko.

Jaixo eta hillebete gitxira, medikuak egindako rebisiño batian konturau ziran umiak arazoren bat zekala eta, proba mordua egin arren, ez eben asmatzen zein izan leikian umiari normal garatzen galazten zetsan gaixotasuna. Gurasuak azaldu deskuenez, lau urtian itxoiten egon eta gero, azkenian lortu dabe jakitzia zein dan Ibaik dakan gaixotasuna: Allan Herndon Dudley sindromia izeneko mutaziño genetikua. Mundu osuan 130

bat kaso baiño ez dagoz eta, hortaz, ixa ez dabe horren inguruko inbestigaziñorik egin. Halanda be gurasuak itxaropentsu dagoz, "gaixotasuna ez dalako degeneratibua eta fisioterapiarekin hobetzen jua leikiala esan deskuelako". Ibairendako dagnostikua euki arren, alkartiak egitten daben biharrarekin segitzeko asmua dakela esan deskue gurasuak eta, bide batez, aurrera egitten laguntzen detsen guztieri eskerrak emon nahi detse. Las-



ter estrenauko daben dokumentalaren trailerra Youtuben ikusi leike, <https://youtu.be/T2fzNJGBaTE> helbidian.



Nahi baiño euri gehixago Urkiko jaixetan

Beste urte batzuetan demaseko beruarekin ospatu dittuen Urki auzoko jaixak aurten oso beste-lako eguraldixarekin pasau dittue, baiña edozelan be, tarteka zaparradak bota arren, jai egitaraua osatzen eben jarduera gehixenak egitteko modua topau eben eta, jakiña, auzokuak ondo pasatzeko eta parrandarako goguari eutsi zetsen asteburu osuan. Bertan behera laga bihar izan zittuenen artian zapatu gaberako aurreikusitta eguan kontzertua dago.

Nagusixendako udalekuak egingo dira ekaiñian

"Udalekuekin gaztiak aisialdirako aukeria badake, jubilauek zergaittik ez?", galdetu eban Felix Elkoroiribe Biztu alkartiaren presidentiak aurreko astian, lehen aldiz egingo diran udalekuak aurkezteko egin eben prentsaurrekuan. Udalekuak antolatzeko proposamena Joseba Garcia La Salleko udalekuen arduradunari aurkeztu eta ideia bikaiña begittandu jakon, eta gauza bera pentsau eben Udalian be. Holan, ekaiñaren 27tik 30era bittartian egingo dira udalekuak, La Sallek San Asension (Errioxa) dakan egoitzan. Garciaaren berbetan, "aurtengua proba pilotua izango



da eta, ondo urten ezker, asmua hurrengo urtietan be antolatzen segitzia litzake". Izen-emotia zabaldu eta berehala 10 lagunek emon eben izena, baiña baten bat animau ezker ekaiñaren 25era arte izango dau apuntatzeko aukeria. 30-35 lagunendako tokixa egongo da eta 140 euro ordaindu biharko dittu bakotxak. Bestalde, udalekuetara jua ahal izateko Eibar-ko jubilauek etxeren bateko bazkidia izan bihar da derrigorrez.

Atzegiko famelixak alkarrekin bazkaldu eben zapatuan

Urteroko moduan, oporrak baiño lehen bazkarixa egin eben **aurreko zapatuan** Atzegi alkartekuak. Debabarreneko famelixak eta begirale modura jarduten daberen boluntarixuak Eibarren alkartu ziran eta, Untzagan talde argazkixa etara eta gero, danak alkarrekin bazkaltzera juan ziran.



Atzegiuko urteroko ohitura politarekin jarraitzen dabe. **Maialen**



Bazkarixa egingo dabe Azittaingo elizan katekista izandakuak

Azittaiñen katekesixa irakasten ibillittakuak bazkarixa egingo dabe **ekaiñaren 30ian** eta ospakizun horretan ahalik eta jende gehixen bildu nahi dabe. Horregaittik, Azittaingo elizan umieri katekesixa erakusten ibillittako guztiak animau nahi dittue egun hori alkarrekin bihar dan moduan ospatzera animatzeko, berdin de-tsa zeregin horretan luzaruan jardun eben ala denpora gitxi egin eben. Bazkarira juan nahi daberenak aurretik izena emon biharko dau, ekaiñaren 21a baiño lehen, 635 20 64 34 (Maria Luisa) edo 618 38 43 28 (Marino) telefono zenbakixetara deittuta.

Animalixen aldeko jardunaldixa antolatu dabe domekarako



Gure eskualdian animalixen alde biharra egi-tten daberen Marcan Huella eta Katubeltz alkar-tien eskutik domekan, 11:30xetatik aurrera jar-dunaldi berezixa egingo da Untzagan, Garagardo Jaixaren karpan: 12:30xetan txakur sinpatikuena, jabiarekin antz gehixen dakana eta tandem onena osatzen dabena aukeratzeko lehiaketia hasiko da (izen-emotiak 5 euro balixo dau eta Jardiñetako su-

permerkatuan, +Qwapos eta Burbujas y más den-detan egin leike). Horrez gain, beste jarduera bat-zuk egingo dira: makillaje-taillarra (12:00/14:00), marrazki-taillarra (11:30/14:00), ipuin-kontalarixa (11:30/12:30), animalixeri buruzko hitzaldixak, azo-ka, musikia... eta karpan bazkaldu nahi daberen-dako paella-jana antolatu dabe (14:30xetan). Batzen daberen dirua animalixak babesteko erabiliko dabe.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



— Lora eta landare natural eta lehorrak
— Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ASTELENA Gastroteka



Estaziño, 7

Erreserbako ardi-gaztak
(hainbat herrialdetakoak)

Hesteki iberikoak

Artisau kontserba gatzatuak (antxoak...)

Gourmet frituak

Bi lagunendako
TXULETA MENUA
36 €-tik aurrera
(180 egunerainoko ontzea)

ESTAZIÑO, 7
943 20 70 32



Eibar izan da lehena pentsiodunen eskaeriak babesteko moziñua onartzen

Pensiño duiñen aldarrikapenaren inguruan maiatzian aurkeztu eben moziño-proposamena Udaleko Bozerra-maillien Batzordiak onartu dabela eta, Eibarko pentsiodunen plataformako ordezkariak pozik azaldu ziran astelehen goizian horren barri emoteko udaletxian egin eben agerraldixan. Biztu Eibarko Jubilatuko Egoitzetako Elkartek, Eibarko Duintasuna Elkartek eta Eibarko Pentsionisten Plataformak aurkeztutako moziño-proposamenak PSE-EE (10), Eibarko EH-Bildu (5) eta Irabazi (1) Udal Taldien aldeko botuekin onartu eben. Eibarko EAJ-PNV taldiak kontrako botua emon eban, "moziñua bloke bakarrian bozkatu biharrian puntuz puntu bozkatu nahi ebelako".

Moziñuari babesa emon detsen alderdixeri eskerrak emotiaz gain, moziñuan jasota dagoaz eskaera nagusiñak gogora ekarri zittuen: "Gaur egun bizi dogun egoerara eruan gaittuen legiak indargabetzia nahi dogu eta, horrekin batera, pensiño duiñak bermatzeko biharrezkuak diran neurrixak hartzeko eskatzen dogu". Udalian onartu dabena moziñuaren 2. puntuan Europako Gutun Sozialak jasotzen dabena betetzeko eskaeria berretsi dabe: "1.080 euroko gitxiengo pensiñua ezartzia nahi dogu, pobrezia-aren mugatik urtetzeko. Eta, hori egin ezian, Euskadiko pentsiodun guztiak hillero kopuru horretara aillegatu ahal izateko bihar dan osagarria



Pentsiodunen ordezkariak agerraldixa egin eben astelehenian, Udalak moziñua onartu izanaren gaiñeko baloraziñua egittek.

Eusko Jaurlaritzak ezartzia". Horrekin batera, KPI erreala-rekiko lotura ezartzia eskatzen dabe, "etorkizunian pensiñuak eguneratzeko formula gisa". Agerraldixa amaittu baiño lehen azpimarratu ebenez, "Euskal Autonomia Erkideguan Gizarte Segurantzza sistema propia izatia ezinbestekua dala pentsatzen dogu, hau da, hamen bizi hamen erabagi".

Moziñua onartziak garrantzi haundixa izanda be, bakarrik horrekin arazua ez dala konponduko argi dake. Horregaittik, ekaiñian be astelehenero egitten dittuen alkarrataratziekin jarraituko dabe, "San Juan Txiki egunian izan ezik, baiña hori pasau eta hurrengo astian atzera be kontzentraziñua egingo dogu, betiko moduan 12:00xetan udaletxe parian"

Eskolako Agenda 21 egitasmoko udalbatzarra egin dabe ikasliak

Aurreko asteko eguenian Eibarko 9 ikastetxetako 80 ikasle jaso zittuan udaletxe-ko pleno aretuak, Eskolako Agenda 21eko udalbatzarrian. Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasliak 'Ura eta Deba ibaiak' gaixa aztertzen ibilli dira ikasturte honetan eta egindako biharren barri emon zetsen plenora jua ziran udal ordezkariexeri. Ego ibaiak Egogain inguruan botatzen dabena kiratsa sailhestia, herriko iturririk ur gitxiago alperrik galtzeko

moldatzia, ur kontsumua murrizteko eraikin publikuetako

txorrotetan erreduktore edota difusoriak ezartzia eta plasti-



kozko ur botillen erabilleria murrizteko Udalak kantinplorak edo kristalezko botillak banatzia proposatu eben ikasliak, bestiak beste. Ikasturte honetan, Debegearen koordinaziñuaren laguntasunarekin, hainbat ekintza garatu dittue uraren gaixa lantzeko eta, gaixaren ingurukuak ondo ikertu eta aztertu eta gero, ikasliak udalbatzarrian aurkeztu zittuen etara dittuen ondorixuak eta, horrieri lotuta bururatu jakuezen eskaera eta proposamenak.

MIKEL BOLLAIN MUNIOZGUREN (2018ko ekainaren 12an hil zen, 60 urterekin)



"LAGUN ON BAT aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta AHAZTEA EZINEZKOA"

ZURE KUADRILAKOAK



Erortzeko egoeran eta abandonatuta dagoen Sagartegieta jauregia Ondarearen Zerrenda Gorrian sartu du 'Hispania Nostra' Ondare Kultural eta Naturalaren Defentsarako Erakundeak. 1655. urtean eraiki zen Maltzagan dagoen jauregia eta Sarteitta izenez ere ezaguna da. *"Eraikuntza ederra eta elegantea da"*, elkartearen berbetan, *"nahiz eta gaur egun erortzeko egoeran egon eta bertara joateko sarbidea zaila den, pinu eta sasiek eta autopistako lanek bidea itxi dutelako"*. Sagartegieta familia lehenik eta Sustaetarrak gero bizi izan ziren jauregi honetan, eta Maltzaga ingurua kontrolatu zuten, *"komunikazio-puntu garrantzitsua"*. Baserri moduan eraiki zen, baina estilo barroko eta neoklasikoko jauregi bezala erreformatu zuten XVIII. mendean. XX. mendetik aurrera indarra galdu zuen eta abandonatuta geratu zen Gerra Zibilaren ostean.

Astekari honek Sagartegieta baserriaren inguruko erreportajea kaleratu zuen 1994ko irailaren 23an, aldizkariaren 83. zenbakian, orduko hartan **Eluska Hernandezek eta Jose Gregorio Gonzalezek**, Ego Ibarra batzordearen laguntasunarekin, herriko baserri eta etxe zaharren gorabehera historikoetan sakontze-lanetan zebiltzala aprobetxatuta. Barrenetxe, Untzeta, Gisasola edo Sanjuangua izan ziren aztertutako baserrietako batzuk. Eta, eurekin batera, Sagartegieta (edo Sartei) dorre-etxearen historia ere jaso zuten. Eluska eta Jose Gregorio unibertsitatean Historia ikasten zebiltzan eta, Arterako lan bat egin behar zutenez, *"Sarteiko dorre-etxea aukeratzeko esan zituzten Ego Ibarra batzordekoek"*, handik urte bira publikatzeko asmoarekin. Ikertzaile biek ziotenez, *"Eibarrek lehen dorre-etxe asko zituen; Sartei zen horretako bat"*.

Interesdun dorre-etxea

Interes kulturala zuten 40 eraikin zeuden Eibarren urte hartan. Untzeta, San Andres parroikia, Markeskua eta Udaletxea kalifikatuta zeuden Ondasun Kulturalak ziren. Aldatzeko dorre-etxeak eta Sarteik ez zuten oraindik kalifikazioa, baina espedientea zabaltu zitzaizen hori titulatu izan ahal izateko. Ordurako Sartei bera zen, eraikin guztietatik, txartoen zegoena, hogeitabat urteetan inor ez zelako bizi bertan. Sartei edo Sagartegieta Maltzagan dago, Arrate bailaran: autopista gainean ikusten den etxea dugu. Dorre-etxe horretako ugezaba 84 urteko Jesusa Sustaeta zen; Diputazioetik Sartei berritzeko erraztasunak eskaini zituzkion, baiña bera ez zen larregi fidatzen.



Sagartegieta

JAUREGIA Ondarearen Zerrenda Gorrian

Barrutik kanpotik baino txartoago zegoen dorre-etxea; gainera, teilatuaren zati bat jausten hasita zegoen. Dena dala, Eibarren ia topatu ezin ziren interes handiko elementu ugari zituen horrek etxeorrek: geziak botatzeko saeterak ditu eta antxinako aska batzuk ere bai, esate baterako.

Erdi Aroko elementuak

Sagartegietaren interes artistikoa eta historikoa oso lotuta daude. Jesusa Sustaetak ondo baino hobeto ezagutzen ditu etxearen gorabehera historikoak eta hainbat detaile ere bai. 1655ian egindakoa izanda ere, elementu mordoa Erdi Arokoak ditu, Hernandez eta Gonzalezen ustetan: *"Distribuzioa eta etxearen forma, esate baterako. Zimenduak ere oso zaharrak omen dira"*. Orduko hartan hainbat kondaira ere kontatu zizkien Jesusa Sustaetak Historia ikasleei. Esate baterako, honakoa: *"Aintzina Sagartegieta etxea diru barik gelditu zen. Semeak, abade ikasten jardun arren, ikasketak ezin zituen ordaindu. Hori dela-eta, titiritero batzuen lagun egin zen Bilbozharrean. Urte batzuk geroago Peruko Cuzco herrian agertu zen hori gazteori"*.

Historia pixka bat eginez

Erdi Aroan Maltzagan baserriren bat bazegoela pentsatzen da. Bestela, lehenago Sagartegietarren dorre-etxe bat han egotea ere izan daiteke. **1603an** Juan Sagartegietak San Andres parroikia konpontzeko laguntasuna eman zuen. Haldalgia tituludun haundiki familia izan zen Sagartegieta. **1655ean** Sagartegieta izeneko dorre-etxea jaso zuten. **1734an** egin zuen Maria Sagartegietak testamentua. Urte gutxi geroago hil zen emakumeori. Bera dugu azkenengo sagartegietarra. Sustaeta haundiki familiako batekin ezkondu zen. **1785ean** haundiki titulua konfirmatu egin behar izan zuten Sagartegieta etxeok, udaletxean postu batean jarduteko. Itxura denez, agiria galdu egin zuten. **XVIII. gizaldian** Eibarren zeuden 18 jauregietako bat zen Sagartegieta. **XIX. gizaldian** erdialdean Sustaetarrak Maltzagako bentara joan ziren bizi izatera; morroiak geratu ziren Sagartegietan. **1972an** etxea hutsik gelditu zen. Bertan bizi ziren azkenak Victor Kortaberria eta Eugenia Unzueta izan ziren. **1980an** Kalifikatutako Ondasun Kultural izendatzeko espedientea zabaltu zuten. **1994an** Jesusa Sustaeta zen jabea eta etxearen barruko aldea eta teilatua egoera txarrean zeuden.

Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzeko modu aproposa aurkitu zuen joan den barixakuan Eibarko Udal Artxiboak. Pepe Sainz Arabako Probintzia-Artxibo Historikoko zuzendariak 'Idazkera eta idazkiak' izeneko tailerra eskaini zuen eta sei mila urteko ibilbidea egin zuten bertan bildu zirenek. Idazketaren sorreraz, eboluzioaz eta historian zehar izan duen garrantziaz jardun zuen Sainzek, eta idazkera mota ezberdinak ikusi eta praktikatu ahal izan zituzten parte-hartzaileek.



Pepe Sainz Arabako Probintzia-Artxibo Historikoko zuzendariak idazkera mota ezberdinak praktikatzeko aukera eskaini zien parte-hartzaileei.

Idazkeraren historian zehar ibilbidea Udal Artxiboan

Artxiboetan arakatzen ibiltzen direnei zuzenduta zegoen Pepe Sainzek eskaintako tailerra, baina Eibar Udal Artxiboaren toki didaktikoa bete egin zen barixaku goizean. "Artxiboetan aurkitzen den dokumentazioa ulertzen laguntzeko eskaintzen den tailerra da", Sainzen berbetan. "Artxiboetan aurkitu ditzakegun euskarri batzuk arraroak edo arro-

tzak izan daitezke guretzat: papiroa, XIV. mendeko papera, idazkera prozesala...". Ordu eta erdiko iraupena izan zuen saioak eta bertan bildu ziren lagunen jakinmina asetu zuen Arabako Probintzia-Artxibo Historikoko zuzendariak. Hemen daukatzue tailerlean azaldutakoaren laburpena.

erraza izan eta idazketa menderatzeak markatu du zibilizazio batzuk beste batzuen gainetik igo izana. Idazketa-sistemarik garatu ezin izan duten kulturek hainbat ondorio jasan dituzte. Ezin izan dituzte euren esperientziak eta pentsamoldeak belaunaldi batetik bestera transmititu, ez dute ideiak helarazteko bide azkarrik izan, eta ez dira gai izan gobernu eta ekonomia garaturik sortzeko.

Irudiekin idazten

Lehendabiziko idazketa-sistemak logografikoak izan ziren, hau da, piktogramak eta ideogramak. Ikur bakoitzak objektu

**Buztin zatiak
horma-hobietan
gordetzen ziren,
dokumentuak
sailkatzeko
lehen moduan
sortuz**

Hizkuntza eta idazketa ez dira gauza bera

Gaur egun 6.000 hizkuntza inguru ditugu, baina 19 idazketa-sistema baino ez. Sistema latindarrean oinarritutako idazketa-sistema da hedatuena, hau da, guk erabiltzen duguna. Gorpila, goldea edo ezpata izan diren bezala, eguneroko bizitzan lagun-

tzen duen tresna da idazketa, eta horrela izan da orain dela 75.000 urtetik hona. Hala ere, orain dela 5.500 urtekoak dira arkeologoek aurkitu dituzten idatzitako objektu zaharrenak. Une horretan markatzen da historia deritzoguna.

Zibilizazioen eta idatzizko kulturaren garapenaren lotura

Idazketaren bilakaera saiatze eta hutsegite fenomenoak izan da. Ez da aurrerapen



edo ideia bat adierazten zuen, eta salgaien inbentarioa egiteko sortu ziren. Ez ziren gai oso pentsamendu landuak irudikatze-ko eta ordutik aurrera fonetizazioa deritzon fenomeno hasi zen. Ikurrak soinuak adierazten hasi ziren eta silaba bakoitzarentzat irudi bat marrazten zen. Horren adibide dira Sumerko ikur kuneiformeak eta Egiptoko hieroglifikoak. Sistema hura asko hobetu zen kontsonante eta bokal bakoitza adierazteko ikurrak asmatu zirenean; hieroglifikoetatik alfabeto latindarrera eboluzionatuz, alfabeto feniziarretik eta greziarretik igaro eta gero.

Buztina, papiroa eta argizaria

Sumerko idazkera kuneiformea da eza-gutzen den idazketa antzinakoena. K.a. 3200. urte ingurukoa da eta buztinezko oholtzetan heldu da gaur egunera arte. Buztina heze eta bigun zegoenean marraztu egiten zen metal, boli hezur edo zurzko ziriarekin. Grabatu ondoren, eguzkitan lehortzen edo laban egosten zen. Buztin zatiak horma-hobietan gordetzen ziren eta horrela sortu ziren dokumentuak sailkatzeko lehen moduak. Egiptok bi ekarpen nagusi egin zizkion idazketari: papiroa eta idazketa hieroglifikoa. Idazketa ugaritu eta hedatzeko aukera eman zuen papiroak, eta kopiak artxibo eta liburutegietan gordetzen hasi ziren. Papiroa Grezia eta Erromara esportatu zen, nahiz eta material urria eta oso garestia izan. Erroman, adibidez, argizarizko oholtzoxa zen euskarri erabiliena. Zurez-

Idazketa sistemarik garatu ezin izan duten kulturek hainbat ondorio jasan dituzte



ko oinarria zuen, argizariz estalia, eta horren gainean estiloaz idazten zen. Gainera, nahi beste aldiz berrerabili ahal zen.

Pergaminoaren kalitate handia

Antzinaroan ere erabili zen, baina Erdi Aroan hedatu zen pergaminoaren erabilera. Bi aldeetatik idazteko aukera ematen zuen eta koadernatu zitekeen. Idazteko moduan ere aurrerakuntzak ekarri zituen. Leuna eta sendoa zenez, hegaztien lumen erabilera handitu zen eta, ondorioz, letra gotiko librararioaren sorrera eman zen. K.a. 2600. urtean kea edo ikatza ur aglutinatzailearekin eta gomarekin nahastuta sortutako tinta erabiltzen hasi ziren Txinan, baina XIV. mendean metal eta azidoz egindako tintak hartu zion tokia.

Paperaren erreboluzioa

Txinatarrek k.a. II. mendean asmatu zuten papera, eta berrerabilitako trapu eta oihalekin egiten zuten. Arabiarrek Euro-para ekarri zuten X. mendean eta paperaren fabrikazioa ho-

betu zuten, zuriagoa eta gogorragoa eginez. Paperak abantaila handiak ditu. Adibidez, ez da fabrikatzen hain neketsua, errazago idazten da eta bi aldeetatik idaztea ahalbidetzen du. Inprimategiaren sorrerarekin, XV. mendean, paperaren erabilera zabaldu zen. Idazkerari dagokionez, idazkera dotore eta biribilagoa egitea lortu zen, letra gotiko prozesala gailenduz, eta XVII. mendean letra endekatua sartu zen. XVIII. mendean, bestetik, altzairuzko lumatxo (tinta biltegi txiki batekin) eta arkatza agertu ziren.

Euskarri eta material berriak

XIX. mendean erdialdetik aurrera paper berreskuratua (paper zurien hondakinekin egina) eta paper birziklatua (paper erabiliak garbitu egiten ziren berriz erabiltzeko) erabiltzen hasi ziren. Kalitate baxukoak ziren eta, ondorioz, ezin zen denbora luzez gorde. Idazteko tresnak, ordea, asko hobetu ziren. Altzairuzko lumari tinta biltegia jarri zitzaion eta orbanik ez egitea ahalbidetu zuen. XX. mendean bolaluma (lumaren muturrean tinta dosifikatzeko zeregina zuen bolatxo bat jarritz), errotuladoreak, eta pigmentu sintetiko eta erretxinaz erabiltzen diren tintak agertu ziren, oso egonkorak eta ia hondatzen ez direnak



Aurten 15 ikastaro eta 3 jardunaldi antolatu ditu Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren, udako ikastaroetan. Iaz bezala, aurtengo goiburua ELKAR EKIN da, udakoak elkarlanean antolatu eta jakintza berriak sortzen direla azpimarratzeko asmoz. Urtero bezala, ikastaroetan landuko diren gaiak berriak izango dira eta, kurtsoren batean parte hartu nahi duenak, dagoeneko matrikula egiteko aukera dauka www.ueu.eus helbidean.

Udako ikastaroak ELKARlanetik EKINez



Aurtengo Udako Ikastaroak aurkezteko ekitaldian Kepa Sarasola UEU-ren zuzendariak elkarlana azpimarratu nahi izan zuen: "ELKAR EKIN goiburuari jarraituta aurkezten ditugu aurten ere udako ikastaroak. UEU ez litzatekeelako posible izango elkarlanik gabe. Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaroak ere hori islatzen dute. Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu per-

tsiona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eibarko aurtengo edizio hau, besteak beste ALDEE, Iratzar Fundazioa eta EMAUS Fundazioarekin antolatu dugu, bai eta gure bazkide eta kolaboratzaileekin ere. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, eta aurrerantzean lanean jarrituko dugula espero dut. Beste urte batez, bere curriculum profesionala zein pertsonala abe-

Jardunaldiak Eibarren

- Psikologo Euskaldunen II. Topaketak.
Ekainak 16
- Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen IV. Bilkura: Zerbitzu berriak erabiltzaile berrientzat. Erabiltzaile berriak zerbitzu berrietarako.
Ekainak 28
- Matematikari Euskaldunen III. Topaketak eta Geogebra Erabiltzaileen II. Topaketak.
Uztailak 4

rastu nahi duen orok izango du tokia gure ikastaroetan. Udako Ikastaroen plaza ikasi, eztabaidatu, lan egin eta ideiak trukatzeko foro ezin-hobe da, eta guztiok bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztet".

Udako ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak

- Ikasle, langabetu eta jubilatuen matrikuletan BEHERAPENAK eskaintzen ditu UEUK.
- EIBARKO Udalak diru-laguntzak ematen ditu ikastaroetara datozen herritarrentzat.
- BERRIALAGUNEK UEUko bazkideek duten deskontu bera izango dute. Izena emateko epea jadanik irekita dago eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago arte egin ahal izango da matrikula. Informazioa eta matrikula: www.ueu.eus





Era guztietako gaiak lantzeko aukera eskaintzen dute ikastaroetan.

Irati Iciar, UEUko Udako Ikastaroen arduradunak azaldu zituen ikastaroei dagozkien xehetasunak: "35 jarduera antolatatu ditugu aurten guztira. 100 ikastaro proposamen jaso ditugu eta aukeraketa egitea zaila izan da, jasotako ideiak oso onak izan direlako. Horietatik 15 ikastaro eta 3 jardunaldi Eibarren, Markeskuan eskainiko ditugu".

Ikastaroen arduradunaren berbetan, aurten sei formatu desberdineko ikastaroak daude: "Aurretik jakintza maila bat izatea beharrezkoa den ikastaro

espezializatuak daude; dibulgazioko ikastaroak, berriz, interes orokorreko ikastaroak dira eta ez da behar jakintza maila zehatzik; garapen pertsonaleko ikastaroek pertsona moduan garatzeko balio dute, adibidez galerak modu baikorrean bizitzeko; eta ikastaro horietan batera jardunaldiak, hitzaldiak eta tailerrak ere egingo dira". Bestalde, Iciarrek azaldu-takoaren arabera, aurten barne-egia berreskuratuko dute Baionako Udako Ikastaroetan, Etxepare lizeoarekin lortutako hitzarmenari esker.

Eibarko ikastaroen zerrenda

- Docker praktikoa: garapena eta DevOps.
Ekainak 28-29
- Hazi, Eraiki, Hezi (II): haurrak espazio sortzaile.
Ekainak 28-29
- Herrigintzaren aro berri baterako begiradak.
Ekainak 28-29
- Kataluniako Errepublika, zergatik eta zertarako.
Uztailak 5
- Blockchain: kriptotxanponen haratago, teknologia ezagutu eta trebatzeko tailerra.
Uztailak 5-6
- Grasshopper 3D eta arkitektura proiektu algoritmikoa. Oinarriak eta proiektu mekanismoak.
Uztailak 5-6
- PISA azterketako irakurketa probaren analisia eta lanketa bideak.
Uztailak 5-6
- Generoaren historia: irakaskuntza tresna.
Uztailak 9-10
- Satelite bidezko datu libreen prozesamendua QGIS erabiliz.
Uztailak 11-12
- Unibertsitate Ekintzailea eraikitzen: Euskal Herriko eta Latinoamerikako begirada eta proposamenak unibertsitate eta gizarte eragileentzat.
Uztailak 11
- Sexuaren eraikuntza norberarengandik.
Uztailak 11-12



BLANCA VIANA CAMPOS (2018-V-9)
(HILARIO NAGOREren alarguna)

"Agurrik ez, gero arte baizik. Betirako gure bihotzetan"

FAMILIAKOAK


Bere aldeko MEZA egingo da domekan (ekainak 17) eguerdiko 12:00etan, San Pio elizan.





gure esku dago

eibarren
2018-VI-10









+ osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinika

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOIA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

KIRURGIA ESTETIKOIA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

Indibaterapia
Kirol lesioak
Drenaje linfatikoa

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
TLE. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Mª Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57
94 444 95 34

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 1004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinika

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagoako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoan
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA


HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORREETAN

centro médico eibar



Psikoterapia

R.P.S.: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com





JOSE VILA: Urko gailurra.

Maidier Alcoba, Jone Amas eta Jone Azkarate (Jaixak Herrixak Herrixandako)

“Denon laguntza beharrezkoa da jaiak aurrera ateratzeko”

Jaixak Herrixak Herrixandakok prest dauka San Sajuonetako egitaraua. Martxoan hasi zen gazte talde bat barixakuero Txaltxa Zelaian biltzen, eta aste honetan eman dute ezagutzera aurtengo egitaraua sare sozialen bitartez eta kartelen bidez. Batukada feminista, kontzertu mordo, bazkari herrikoa, “Txoskarrak”, makarronada, merendola, San Juan sua... Talde horretan lanean diharduten hiru gazterekin egoteko aukera izan dugu: Maidier Alcoba, Jone Amas eta Jone Azkarate.

- Noiz hasi zineten bilerak egiten eta zelan joan dira gauzak?

Martxoan hasi ginen elkartzen, barixakuero, bilera irekian eta jendea parte hartzerantz animatuz. Jendea etortzen da, baina egia esan beti ibiltzen gara berdinak. Txosnan txanda bat egitearekin nahikoa dela uste dute askok, baina jaiak antolatzeak lanketa sakona eskatzen du, lan handia egin behar da eta jendeak ez du hau ikusten. Antolaketa aldetik, talde desberdinak egiten ditugu: batzuk kontzertuak lotzen ibiltzen dira, beste batzuk egitaraua prestatzen, Udalarekin eta beste taldeekin bilerak egiten dira, komunikazioa beste talde batek eramaten du... Herriko talde eregile desberdinek ere hartzen dute parte bileretan. Beteranoek lan karga handiagoa izaten dute eta gu beti laguntzeko prest egoten gara.

- Zuek zertan ibili zarete?

Jone Azkarate kartelaren diseinuaz arduratu da eta gu (Jone Amas eta Maidier Alcoba) instagrama eta Facebook-a eraman ditugu. Hor ibili gara “txapia” ematen jendea bileretara erakartzeko, edo kamiseta-lehiaketaren berri ematen. Orain “Txoskarra” promozionatzen dihardugu: ekainaren 24an mozorro eguna egingo dugu, eta aurtengo mozorroa galaz jantzia izango da. Goizeko 6:30ean Txoskarraren gala ospatuko dugu, hainbat sarirekin, dantzariena, langileena, txosnak etxe bihurtu zaizkiona, mozkorrena... Txosna bakoitzean kutxa bat egongo da jendeak botoa emateko. Ez da beharrezkoa oso jantzi landua izatea, gauzatxoren bat bakarrik eramanda nahikoa da. Txosnagunea ere mozorrotuko dugu eta alfonbra gorria ere izango da. Eta gero makarronada! Aste honetan bideo bat zabaldu dugu. Jendea mozorrotzera eta parte hartzerantz animatu nahi dugu!



Maidier eta Jone biak prestatutako egitarauaren kartelarekin.

- Eta zer dira jaiak musika gabe?

Kontzertuek egitarauaren zati garrantzitsua bat betetzen dute.. Betiko moduan kontzertu mordo egongo da: Mugi Panderoa, Batukada Feminista, Eirband, DJ Marivel, Gatz, Esne Beltza Sound Sistem (Xabi Solano kamioi batean ibiliko da kale-etan zehar), Tacumah Reggae, Roba Estesa, Gora Etorri, Mice, Revolta Permanent, Ira, Chocolate Remix, Eonian elektrotxaranga). Horretaz gain, urteroko presoen aldeko bazkaria izango dugu San Juan egunean eta merendola herrikoa San Juan txiki egunean.


- Herri-bazkariak arrakasta izugarria izaten du eta urtero argazki ederrak lagatzen dizkigu.

Aurten ere jende mordo elkartuko da Untzagan gazte egunean, San Juan bezperan. Goizean kamisetak banatuko dira eta bazkaltzeko 700 pertsona bilduko gara, iaz baino ehun gehiago. Bazkarirako txartelak bi arratsaldetan banatu ditugu, eta jende asko txartelik gabe gelditu da. Mahaiak eta aulkiak montatzeko, eta bazkaldu ostean desmontatzeko, jendearen laguntza behar da. Txosnan txandak egiteko ere jendea behar da. Hemen denak gara boluntarioak eta guztion artean egiten badugu errazago egin daiteke. Jaixak Herrixak Herrixandako jai euskaldun, parekide, parte-hartzaile eta herritarraren aldeko kolektiboa da. Eta gogoratu ez direla agresio homofobo, sexista eta arrazistak onartuko.

Junior mailako San Juan Saria jokatu da etzi

San Juan Sariaren 83. edizioarekin amaitu da Eibarko Txirrindulari Elkartek denboraldi honetarako prestatutako egutegia. Junior mailako lasterketa hori Gipuzkoako txapelketarako baliogarria izango da eta, 09:30ean hasita, eguerdiko 12:00ak inguruan amaituko da, aurretik 98 kilometro osatuta. Untzagatik irteera motela egingo dute Apalategiraino eta, behin irteera emanda, Arrasateko Eroskiko errotondoraino joko dute, han buelta eman eta, Maltzagatik pasatuta, Debatik Mutrikuraino jotzeko. Kalbaixo gaina igota, Sasiolara jaitsiko dira Azkarateko gaina hartu aurretik, eta hortik Elgoibarrera

helduko dira, San Antolingo errotondatik Eibarrerako bidea hartzeko. Helmuga T. Etxebarria kalean egongo da eta sari-banaketa ekitaldian aurtengo kartelean dagoen Andres Arriaga omenduko dute, "Eibarko Txirrindulari Elkarteko bazkidea izan zelako hil arte". Sari-banaketaren ondoren lunch-a izango da udaletxean, Txirrindulari Elkartekoek Valenciaga Memorialeko babesleei probaren alde egindako guztia eskertu nahi dielako ("aurten lehenengo aldiz laga zuten bertan behera lasterketa hori eta babesleek errekonozimendu barik geratu ziren").



Asier Cuevasek 46. postuan amaitu zuen Sudafrikako trailean

Asier Cuevas eibartarrak 46. postuan amaitu zuen Hegoafrikako Durban herrian jokatu zen exigentzia handiko Comradeseko Trailean. 90 kilometroak betetzeko sei ordu, 19 minutu eta 15 segundo behar izan zituen, proba irabazi zuen Bongmusu Mthembu Hegoafrikako ultrafondistak baino 52 minutu gehiago. Hala ere, ez da postu makala Cuevasek lortutakoa, guztira 3.459 atletek amaitu zutelako proba.



Txomin Osoro onena izan zen bere mailan Zarautzeko triatloi entzutetsuan

Aurreko zapatuan jokatu zuten Zarautzeko triatloien XXXII. edizioan Deltecoko ordezkaria onena izan zen junior mailan, sailkapen absolutuan 16. postuan amaitzeaz gain. Eibartarrak lau ordu, 33 minutu eta 20 segundo behar izan zituen proba osatzeko: hasteko ia hiru kilometro egin zituzten igerian Getaria eta Zarautzen artean, jarraian 80 kilometro osatu zituzten zirkuitu gogor batean bizikleta gainean eta, amaitzeko, beste 21 kilometro egin zituzten antxixkika asfalto bustiarekin. Hala ere, probak 700 parte-hartzaile izan zituen, tartean Saltoki taldeko Aitziber Urkiola eta Ane Ziaran, betiko moduan aurreko postuetan sailkatu zirenak: Urkiolak 6. amaitu zuen (5:04:20) eta Ziaranek 13. (5:26:51)..



Unben jokatu zuten azken rugby seven-a ere eibartarrentzat izan zen

Aurrez jokatu zuten torneoetan erakutsitako nagusitasuna berretsi zuten Eibar Rugby Taldeko emakumezkoek Unben jokatu zuten hiru-garren torneo horretan. Eibartarrak nagusi izan ziren Uni Bilbao (28-0), Gernika



(29-0), Getxo (21-3) eta La Riojaren (7-0) aurkako partiduetan. Eguraldia lagun izan zuten jokalariek eta giroa ere bikaina izan zen, Untzagako karpant egindako hirugarren zatia barne. Puntu ilun bakarra Getxoko jokari baten lesio larria izan zen.

Pello Diez txapeldun Gipuzkoako selekzioarekin

Eibar Rugbyko jokariak 14 urtetik beherako selekzioarekin jokatu zuten Igorreko Seis Provincias - Clovis Leizagoien seigarren edizioan eta baita irabazi ere. Bizkaia, Araba, Nafarroa, Côte Basque eta Bearn izan zituzten aurkari eta gipuzkoarrek Côte Basque gainditu zuten finalean.

Urbat waterpoloko infantilek 2. amaitu dute denboraldia

Urbat Urkotronik waterpolo taldeak harrobi-lan bikaina dihardu egiten eta amaitu berri den txapelketan 2. postuan amaitu du, 21 talderen artean. Lau jardunaldiren faltan, bosgarren zeuden eibartarrak, baina lau partidutik hiru irabazi eta bestea berdindu ondoren, azpitxapeldun geratu dira. Asteburuan 16-9 irabazi zioten Nauticari eta bosna berdindu Waterpolo Navarrarekin. Hilaren azken astean izango dute hurrengo erronka, Elxeko Espainiako txapelketetan.


Garajes Garciak mendekua hartu zuen foball-zaletuen Kopako finalean

Amaitu da foball-zaletuen torneoaren 37. edizioa eta Bar Txoko eta Garajes Garcia izan dira denboraldiko garaile argienak: Kirolbet Liga Bar Txokorako izan zen moduan (Garajes bigarren sailkatuta), Kirolbet Kopa Garajes Garcia-rentzat izan da, finalean Bar Txokori 3-2 irabazita. Aparicio-ren bi golak eta Lastraren besteak Ibai eta Rasconen bana-koak baino gehiago izan ziren. Partiduaren amaieran, denbo-

raldiko sari guztiak banatu ziren irabazleen artean: Ligako txapelduna (Bar Txoko), Ligako bigarrena (Garajes Garcia), Ligako hirugarrena (Azkena Adahi), Kiroltasun Saria (Bar Arkupe), gol gutxien jasotako atezaina (Asier Hernandez / Azkena Adahi), Goleatzaile nagusia (Kepa Osoro / Azkena), Kopako txapelduna (Garajes Garcia), Kopako azpitxapeldun (Bar Txoko) eta finaleko jokalaria onena (Ander Aparicio).



Ligako txapelduna.



Kopako txapelduna.




Finaleko jokalaria onena.



Kiroltasun Saria.



Goleatzaile nagusia.



Atezain onena.



ARGAZKIAK. Maialen Belaustegi

Deporreko atletismo taldeak bikain federatuen Euskadiko txapelketan

Zapatuan jardunaldi bikoitza izan zuten Klub Deportiboko atletismo taldekoek: federatuek Donostian eta eskolarrek Basaurin. Donostian Euskadiko taldekako txapelketa zegoen jokoan eta, 16 urtetik azpiko neskena laugarren izan zen bitartean, 20 urtetik azpikoen mutilena azpitxapeldun geratu zen. Basaurin Euskadiko jaurtiketa luzeen Kirol Jokoak zeuden lehian eta hor, beste behin, eibartarren espezialitatea dela erakutsi zuten: jabalinarekin, Miren Urizar eta Imanol Egidazu onenak izan ziren, Enara Magunazelaia bigarren eta Pello Osoro hirugarren; eta disko jaurtiketan, Nora Zabala garaile izan zen eta Kepa Marquez hirugarren.

Bezperakoa gutxi balitz, eta lehiaketaz lehiaketa dabiltzanez, domekan beste hitzordu bai izan zuten Deporrekoek, oraingo horretan Durangon jokatutako Euskadiko Master txapelketan: Iñigo Egidazu bigarren izan zen 100 eta 200 metroko probetan eta hirugarren 400ekoan, eta Roberto Gartzia eta Markos Unzetabarrenetxea 3. eta 5., hurrenez hurren, 5.000 metrokoan. Guztien kasuan, 45 urtetik gorakoen beteranoren mailan.



Tatt gimnasioko bi eibartar gaur gaueko boxeoko eta sanda jaialdian

Ohikoa denez, Sanjuan jaiekin batera boxeoko emanaldia izango dugu beste behin Astelena frontoian. Boxeoko amateurren bost borroka eta sanda profesionalaren beste lau eskainiko dituzte gaur gaueko 22:30ean hasiko den jaialdian. Tatt gimnasioan prestatzen diren Sergio Osua eta Andoni Morgade eibartarrek hartuko dute parte sanda modalitateko borroketan, lehenengoak Adria Wenceslaori aurre eginez eta bigarrenak M. Guzman beasaindarra aurkari duela. Sandako beste bi borroketan Knockout-Ermuako Gotzon Indamendi eta Ivan Ruiz bilbotarra izango

dira batean eta, emakumezkoen arteko bestean, Kuraiaiko bi ordezkariak neurtuko dituzte indarrak: Ainara Torbizio zarauztarra eta Sandra donostiarrak. Bestalde, jaialdiari hasiera emango dioten boxeoko borroketan honako norgehiagokak ikusteko aukera izango dugu, guztiak ere hiru minutuko hiru asaltoetara jokatzekoak: luma pisuan, Fran Mendoza (Gasteiz) vs Joy Allende (Madril); superluman, Tetef (Gasteiz) vs Aitor Lopez (Logroño); arinean, Maicol (KO Ermua) vs Cristian Garcia (Gasteiz); eta ertainean bi lehia, Xabi (KO Ermua) vs Jose Luis Saez (Logroño) eta



Kevin Saavedra (Gasteiz) vs Damian Rodrigo (Madril). Lehen lerroko sarrerak, frontoian bertan, 15 eurotan daude salgai, eta gradetakoak 12 eurotan.

Herriko eskubaloilariak notizia izan dira

Azkenean ez Ander Iriartek ez Yeray Larmarianok ez dute Asobalen jokatu du denboraldian. Bi metroko hegalekoak MMT Zamorarekin jokatu du azken denboraldian (jardunaldi bateko gol onena



sartzea ere lortu zuen), baina Gaztela-Longo taldeak ezin izan dio mailari eutsi. Denboraldiko lehen itzulian min hartuta egon zen eta azken jardunaldietan nabarmendu da goleatzaile moduan. Bestalde, gure herritik aspaldi joandako Yeray Larmarianok Segoviako Nava de la Asuncion herriko taldean jokatu du azken denboraldian eta Asobalera igotzeko ateetan geratu da 35 urteko atezaina. Azken partidu erabakigarrian iaz Asobal ligan jokatu zuen Santanderreko Sinfinek kendu zion aukera hori. Lorpen handia izan da, dena dela, Navako taldeak eskuratutakoa, herriak bakarrik 3.000 biztanle dituelako. Mikel Zabala Eibar Eskubaloiko jokalaririk nazionalak, bestalde, azken aldiko berriek diotenez, li-



tekeena da datorren denboraldian Irungo Bidasoarekin jokatzeko Asobal ligan. Azkenik, Imanol Alvarez bere sasoian JD Arrateren gizonezkoen zein emakumezkoen taldeetako entrenatzaile izandakoak hurrengo denboraldian Bera Bera emakumezkoen taldea zuzenduko du. Donostiako taldeak azken liga ere irabazi du.

Ibai Makazaga eta Alazne Irureta nagusi Galdaramiño igoeran

Aurreko domekan Galdaramiño igoerak 10 edizio bete zituen, eta oraingoan ere bi jardueren bitartez egin zuten Urkiko Jaien barruan: alde batetik, ohiko mendi-igoera izan zuten, eta hor Ibai Makazaga oriotarra eta Alazne Irureta Aizarnazabalgoa izan ziren irabazleak; eta, aurrekoaz gain, Atzegikoen mendimartxa ere egin zuten. Azken hori Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen laguntzen diharduen taldea da eta Galdaramiño ibilbide egokitu baten bitartez hartzen dute parte. Lagun artean egun ederra igaro zuten Eibarko mendietatik, beti ere salda eta txorizoaren laguntza paregabearekin.



Lide Azkue zarauztarra Azkonabietan.

38 parte-hartzaile izango ditu Eibar Hiria squash torneoak

Gaur eta bihar Ipurua kiroldegia Eibar Hiria squash torneoaren XV. edizioa hartuko du, oraingoan 38 parte-hartzaileekin: emakumezkoen artean, zortitik hiru gizonezkoen koadroan hartuko dute parte. Alberto Ferreira (bigarrena euskal ranking-ean), Miguel Cabanillas (17.) eta Jon Losadak (21.) osatuko dute Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak. Eurekin batera, gaur egungo euskal ranking-eko lehenengoko 20 sailkatuenetik 17 izango dira txapelketan eta Leon, Kantabria eta Nafarroatik etorritakoak ere izango dira. Txapelketa gaur 18:00etan hasiko da eta bihar jarraituko du finalerdi eta finalekin (goizez gizonezkoenak eta arratsaldean emakumezkoenak).



Iturburuko Olinpiada Txikia

2018-VI-9



Motorra




Sinpatia



Dominen banaketa



Disziplina



Mugimendua



Ikusgarritasuna



Lan-banaketa



Bihotz eta arima



Esku onean



Jaietako lehen akordeak

Sanjuanak datoz eta bost axola euriak, haizeak, temperatura freskoak eta dena delakoak. Pikutara joan dadila meteorologia, festa izango da eibartarron ardura datozen asteotan. Jai-giroan bustitzeko aukera izango dugu asteburu honetatik aurrera, baina San Juan jaietako pegatina irabazleak esaten duen bezala, 'Itxo barik'. Musika izango da protagonista Sanjuanetan, nola ez, eta bihar entzun ahal izango dira jaietako lehen akordeak.

Pixkanaka-pixkanaka San Juan jaietako lurrina duten ekintzak egin dira ekainean zehar. Ikasturte amaierako ikuskizunak, poesia-emanaldiak, kirol-txapelketak... denetariko saioak izan ditugu, baita Eibar Rugby Taldeak urtero antolatzen duen garagardo feria ere. Garagardo karpatik irten eta errepidearen beste aldean rock musikak gorputzak astinduko ditu bihar. The Vartools eibartarrek eta Shinova berriztarrek emanaldi indartsua eskainiko dute bihar 22:00etatik aurrera, Sanjuanei hasiera ez ofiziala emateko gogotsu.

Iazko uztailetik zuzeneko kontzerturik jo gabe dago The Vartools. Disko berria burubelarri prestatzen dabil talde eibartarra, baina grabaketan etena egingo du gaur Zaldibarren eta bihar gurean kontzertuak eskaintzeko. "Zuzenean jotzeko gogo handiarekin gaude", adierazi digu Ion Larreategi abeslariak. "Diskoan entzuten dena baino gehiago gustatzen zaigu zuzene-



Shinova musika taldekideak.

koa, indar gehiago izaten du. Zuzenekotan hazi egiten gara". Maiatzean Logroñon jotzekoak ziren, baina antolatzaileek kontzertua bertan behera utzi zuten euri pixka bat egiten zuelako. "Lau tanta jausi ziren eta soinu teknikariek esan zuten ez zutela arriskatu nahi. Tira, orain gogo gehiagorekin joko dugu Eibarren. Hemen ez gara kikiilduko pare bat tantarengatik". Etxean joteko gogotsu daude eibartarrak, "berezia da guretzat".

Disko berria kalean egon ez arren, kantu berri guztiak jotzeko asmoa dauka The Vartoolsek. "Aurreko diskoko abestiez gain, disko berri osoa joko dugu eta pare bat bertsio ere egingo ditugu". Udatik



bueltan disko berria amaitu eta udazkenean aurkezteko asmoa dauka The Vartoolsek. Irailean hasi ziren grabaketarekin, "baina lasai hartu dugu, maitasun handiko diskoa egiteko".

Berriz, Berlin, Eibar

Ion Larreategi eta Mikel Gauger The Vartoolseko kideentzat ezaguna izango da euren ostean Untzagako eszenatokira igoko den taldearen abeslaria. "Orain dela hainbat urte proiektu musikala abiatu genuen Shinova taldeko Gabriel de la Rosarekin", esan digu Larreategik. Berrizko taldea da Shinova eta The Vartoolsekin batera gau borobila eskainiko duela uste du musikari eibartarrak. "Estilo ezberdinak ditugun taldeak gara, zuzeneko dotorea daukagu biok eta elkarren osagarriak garelara uste dut".

The Vartoolsen Estatu Batuetako hegoaldeko soinuak albo batera utzi eta pop-rock eta rock alternatiboa ekarriko digu Shinovak. Hamar urteko ibilbide arrakastatsua dauka Berrizko taldeak eta ia etealdia barik dabil han eta hemen kontzertuak eskaintzen azken urtean zehar. Azkena, adibidez, Berlineko Ribera Wine-sounds Fest jaialdian.

Eskaintza musikal indartsu hau kontuan izanda, San Juan jaiak hasi direla esan daiteke. Aperitiboa baino gehiago izango da bihar Untzagan eskainiko dena.



The Vartools.

Belaunaldi ezberdinen doinua

Herri kantuzalea da Eibar. Sasoi onetan ala txarretan, historian zehar gaur egunera arte iritsi diren abesti eta doinuek erakusten dute gure herriak beti maite izan duela abestea. Egun, hainbat musika talde eta abesbatza dago gurean, batzuk hamarkadetako ibilbidea dutenak eta beste batzuk lehen pausoak ematen hasi berri direnak. Eibarko musikak iragan eta oraina dauka, baina baita etorkizuna ere, eta horren erakusgarri izango da datorren barixakuan Sostoa Abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak eta Trio Medianoche taldeak eskainiko duten kontzertua.

ETBkoak Trio Medianocherekin harremanetan jarri ziren Sanjuanetako kontzertua grabatzeko proposamena egiteko eta hirukote eibartarrak elkarrekin jotzeko eskaintza egin zion **Sostoa Abesbatzari**. Sostoa begi onez ikusi zuen Trio Medianocheren eskaria eta apustua handitu zuen. Abenduan Eibarko Koro Gaztearekin batera kontzertua eskaini zuten eta, ikuskizun polita irten zenez, abeslari gazteen parte hartzea proposatu zieten Trio Medianochekei. Horrela, hiru taldeek ikuskizun handia eskainiko dute hilaren 22an, barixakua, 22:00etan Untzagan (euria eginez gero, Coliseoan egingo litzateke).

Trio Medianoche izango da emanaldia- ren kartel-burua eta euren kontzertuetan ohikoa den erreperitorioa entzuteko aukera egongo da, baina abesbatzek euren ukitua emango diote ikuskizunari. *"Gainera, aurretik gurekin jo duen Sergio Sanabria*

harpa-jole paraguaiarrak hartuko du parte emanaldian", adierazi digu Jesus Bastida Trio Medianocheko hirugarren gitarra, hirugarren ahots eta maraka-joleak. *"Latinoamerikako musika joko dugu; boleroak, guaratxak eta abar"*, azaldu digu Bernardo Aguilera bigarren ahots eta lehen gitarrak-joleak, *"eta bolero moduan jotzen ditugun euskal abesti batzuk ere joko ditugu"*.

Koro Gaztekoak gogotsu

Trio Medianoche taldeko kideak gogotsu daude emanaldi berezi honen aurrean, baina Eibarko Koro Gaztekoek are gogo gehiago daukate. *"Ideia polita da belaunaldi ezberdinak batzea, batez ere etorkizunera begira"*, esan digu Elena Martini zuzendariak. *"Trio Medianoche izango da protagonista eta guk lagundu egingo dugu, oso pozik gainera. Beste jende batekin jotzeko gogoz daude neska-mutilak eta*



erreperitorio ezberdina abesteko aukera oso erakargarria da".

Eibarko Koro Gazteak normalean abesten ez dituen kantuak interpretatzeko aukera izango dute gazteek. *"Trio Medianoche eskaintzen duen erreperitorioa eta estiloa oso erakargarria da guretzat"*, Martini berbetan. Saioa hainbat zatitan banatuko da. *"Lehendabizi Koro Gazteak bi kanta abestuko ditu ('Proud Mary' eta 'Resistiré'), gero Sostoa beste bi, ondoren bi abesbatzek batera abestuko dugu ('Recuerdame' eta 'Goza mi Calipso'), Trio Medianocheren txanda iritsiko da gero eta, azkenik, Trio Medianoche eta bi abesbatzek elkarrekin abestuko dugu ('Eperrak' eta 'Mi Viejo San Juan')"*.

Momentuz entsegu bi egin dituzte elkarrekin eta hilaren 18an egingo dute azkena. 22an, bestetik, soinu froga egingo da, Elena Martini gehien kezkatzen diona, *"baina ETBko soinu-teknikariak egongo dira eta ziur dena ondo irtengo dela"*. Telebistan agertzea, bestetik, interesgarria da Eibarko Koro Gaztekoentzat. *"Hala ere, gero badakigu kontzertuak behin eta berri eskaintzen dituztela ETB 1ean"*, esan digu brometan Martinek.

Eta gero, Zea Mays

Sostoa Abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak eta Trio Medianocheren lekuko hartuko du **Zea Mays** taldeak 23:30ean Untzagan. Hogeitertetik gorako ibilbidearekin euskal rock musikaren erreferentzia da talde bizkaitarra eta kontzertuz betetako agenda daukate azken aldian. Gurean ere hainbat aldiz izan ditugu eta Aiora Renteriarren ahots indartsua entzuteko aukera izango da berriz Sanjuanetan.



Trio Medianoche taldeari lagunduko diote Koro Gazteko eta Sostoa abeslariak.



JOSEBA ARANZABAL & AMAIA AJURIAGUERRA
(pegatina-lehiaketako irabazleak)

“Pegatinak hausnarketarako balio badu, ba hobeto”

San Juan jaietan alkohol larregi ez edako pegatina-lehiaketa Amaia Ajuriaguerra eta Joseba Aranzabal eibartarrek irabazi dute elkarlanean egindako “Itxo barik” izeneko lanarekin. Nor bere buruaren jabe dela eta ingurukoak eta gertukoak errespetuz tratatzea funtsezkoa dela adierazi nahi izan dute.

- Diseinu arloan lan desberdinak egin dituzuen arren, lanbidez arkitektoak zarete, ezta?

Arkitektura eta aparejadore ikasketak eginak ditugu biok eta bulegoa Eibarren dugu, Bidebarrieta kalean. Aisialdian holako lehiaketetara aurkezteko aukera eta gogoia izaten dugu, burua pixka bat arindu eta egunorokotasunetik apur bat aldentzeko. Lehiaketa hauei esker gure marrazkiak ezagutu dira eta diseinu arloan lan eskakizun batzuk ere izan ditugu. Aurten, esaterako, Gasteizko Udal Musika Banda eta Musika Eskolarekin gabilta lanean. Lehenengoarentzat, neguko kontzertuen kartelak eta esku programak egin ditugu, eta oraintxe bertan bigarrenarekin Udaband proiektuaren kontzerturako kartela eta kamisetak prestatzen dihardugu.

- Ez da lehiaketa bat irabazten duzuen lehen aldia...

Honako hau Sanjuanetako pegatina lehiaketa irabazten dugun hirugarren aldia da. Aurrekoak “Ez izan tronparen errege” eta “Tronpatu barik” pegatinak izan ziren. Zalantza barik, gogokoena lehendabizikoa dugu; elefante mozkortuarena, momentu egokian marraztu eta aurkeztu genuen eta oihartzun handia izan zuen, Juan Carlos I.aren anekdota Afrikan ehizatan... Bestalde, orain artean, gustoren egin dugun lehiaketa Baqué Kafearen azukre poltsatxoena izan da. Oso polita izan zen emaitza eta zabalakundea itzela izan zen. Askok zoriondu gintuzten eta poztekoa da.

- Zer adierazi nahi izan duzue aurtengo pegatinarekin?

Gauzak zentzuz egitea da azken helburua. Nor bere buruaren jabe da eta ingurukoak eta gertukoak errespetuz tratatzea da bilatzen dena. Hori dela eta neurritz edatea ezinbestekoa da, gazte

izan edo edadetuia izan. Umore puntu batekin komeni da helaraztea, hartzaileak mezua umorez eta zentzu onenarekin har dezan eta horretaz gain, hausnarketarako balio badu, ba hobeto.

- Zelako gauzak hartu behar dira kontuan pegatina bat edo kartel on bat diseinatzeko?

Ideia on eta potente bat izan behar da buruan eta, marrazki bidez esanguratsuak izan daitezen, mezu garbikoak, azkar identifikatzekoak. Mezua erdibidekoa edota marrazkia erdibidekoa bada emaitza, orohar, mamirik gabekoa izaten da. Bestalde, guri gauzak eskuz egitea gustatzen zaigu, trazo gutxiarekin; hau da, gutxiarekin asko espresatzea gustatzen zaigu. Ordenagailua ere erabiltzen dugu teknika apurtxo bat borobiltzeko; baina, orokorrean, eskuz egindako lan handia egoten da aurretik ordenagailura pasatu bitartean.

San Juan emanaldia egingo dute bihar Untzagako jubilatuek

Bihar eguerdian, 12:00etan hasiko da Untzaga jubilatutako abesbatzak eta gitarra taldeak San Juan jaien harira prestatu duten emanaldia, Coliseoan. Lorea Ojanguren Alzagak zuzenduko duen kontzertuaren lehen zatian abesbatzak “Noches de Barranquilla”, “Cerca del mar”, “La Perla”, “Betirako zalantza” eta “Guk euskaraz” kantatuko ditu. Atsedenealdian, berriz, gitarra taldeak “Y nos dieron las diez”, “Espinita”, “Maria la portuguesa”, “Siboney” eta “Cuando ya nadie te nombra” interpretatuko ditu. Eta bigarren zatian berriz ere abesbatzak “Xalbadorren heriotzean”, “Puerto de Santa Cruz”, “Cantinerero de Cuba”, “Islas Canarias” eta “La Golondrina” abestiak eskainiko ditu. Amaitzeko, denek elkarrekin San Juan himnoa abestuko dute.



Dantzari Egunarekin agurtuko dute kurtsoa Kezka dantza eskolakoek

Eibarko Dantzari Egunarekin agurtuko dute gaur kurtsoa Kezka dantza eskolako ikasleek. Taldeko dantzariekin batera eskainiko duten emanaldia 19:30ean hasiko da, Untzaga Plazan. Bestalde, 2018-2019 ikasturtean Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasi nahi dituztenentzat matrikulazioa astelehenean, ekainaren 18an zabalduko dute. Ikasle berriek egun horretan bertan izango dute izena emateko aukera, Portaleko 3. solairuan, 19:00etatik 20:00etara (izena emateko 6 urtetik gora izatea eskatzen da). Kezka taldekoekin kontaktuan ipintzeko, kezka@dantzian.com helbidera idatzi.



Ederto ibili ziren saskibaloiairen jaiari

Primerako goiza igaro zuten zapatuan Untzagan egin zen saskibaloia jaialdian parte hartzera animatu zirenek. Goizetik hasita, bazkaltzera joateko ordua ailegatu arte hainbat partida jokatu zituzten kategoriatu ezberdinetan sailkatutako taldeek eta, horrez gain, zozketak, opariak eta beselako jarduerak antolatu zituzten.



Eusko Ikaskuntza omenduko dute martitzenean Armeria Eskolan

Martitzenean, 19:00etan Armeria Eskolan hasiko den "Ondo egindako lana" ekimenaren XI. saioan, Eusko Ikaskuntza omenduko dute bere mendeurrenean, "1918an sortutako erakundeak bere ibilbide luze eta oparoan Euskal Herriari egindako eta egiten ari den ekarpen baliozua eskertu nahian". Saioa elebiduna izango da eta Iñaki Dorronsoro lehendakariak eta Xabier Alkorta Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren eta Mendeurreneko lehendakariak hartuko dute parte. Moderatzailea Pilar Kartzada komunikatzailea izango da. Antolatzaileren berbetan, "ordubeteko saioan, iragana gogora ekarri baina, batez ere, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gakoak eta bideak izango dituzte hizpide".



Euritik babesteko eliza barruan egin zen poesia eta musika errezitaldia

Emanaldi bereziarekin agurtu zuten zapatuan ikasturtea Maite Lorenzok zuzentzen duen Itzamna Poesia Tailerra. Eguraldiak derrigortuta, azken orduko aldaketa egin behar izan zuten eta, Ibarburuzteko iturrian egin beharrean, euritik babesteko, San Agustin eliza barruan egin zuten errezitaldia. Poesiak errezitatu zituzten 20 bat lagunekin batera, zuzeneko musika eskaini zuten Elena Martin Lapeirak zuzentzen duen Juan Bautista Gisasola abesbatzak, Enrique "El Vaca" gitarrajoleak eta Alberto Luis Egia pianojoleak.

Kale-antzerkia Hortzmugarekin

Bihar arratsalderako antzerki saioa antolatu du Udalak: "Femmes" izenburuko ikuskizuna Hortzmuga taldearen eskutik ailegatuko zaigu eta, 19:30ean Untzagatik abiatuta, kalean bertan antzeztuko dute lana.



Musika Bandaren emanaldia Untzagan

Aurreko asteburuan bertan behera laga zuten kontzertua domekan emango du Eibarko Cielito Musika Bandak, 12:30ean Untzagan. Carlos Sánchez-Barbak zuzenduko du eta honako piezak eskainiko dituzte: "Bellas Artes" (pasodoblea, A. Nieto), "Peer Gynt" (suite, E. Grieg), "Vasconia" (rapsodia, A. Peña y Goiri), "Black, el payaso" (aukeraketa, P. Sorozabal) eta "Hollywood milestones" (aukeraketa, N. Iwaik-ren moldaketa).

Piano-ikasleen saioa

Isabel Laspiurren piano ikasleek "Arratsalde bat zineman" izeneko ikuskizuna prestatu dute ikasturtea amaitzeko. Eguenean, 20:00etan hasiko da Coliseo antzokian eta sarrerak 3 euro balio du.



19. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdirako deialdia

Eibarko Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatuta, azaroaren 5etik 10ra bitartean burutuko den 19. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdirako izen ematea zuzeneko



tailaren 25era arte egongo da zabalik eta internet bidez egin beharko da, www.eibar.eus helbidean (lanak ere web orri horren bitartez igo beharko dira sarera). Lehiaketaren inguruko informazioa zein izena emateko inprimakia aipatutako helbide horretan daude eskuragarri.



EVA PEREZ DE ALBENIZ

Seinaleak

Badira pertsona batzuk seinaleetan sinisten dutenak. Eguneroko gertaerak ez direla halaberrezkoak edo kasualitatearen fruitu, baizik eta erlazionatuta daudela eta mezu bat bialtzen digutela. Bizitzak keiñuak egiten dizkigula alegia, eta adi bagaude lagungarriak izango diren pistak lortuko ditugula gure bidea aukeratzeko. Esoteriko samarra irudituko zaizue baina nik aitortzen dut praktikatzeko dudala. Nere urtebetetze eguna pasa berri da, 46 urte bete ditut, eta zenbait seiñale jaso ditudalakoan nago. Hiruzpalau aste direla, Jesus, idazteko afizioa daukan nire ikasle ohi batek, bere idatzi batzuk bialdu zizkidan nik irakur nitzan. Asko ziren baina bazegoen idatzi horietan bat nire arretea kateatu zuena, "El otro" izenburua zeukan. Bertan, gaur egun hirurogeitaka urte dituen Jesusek, bere bizitzaren balantzea egiten zuen eta konforme zegoen bai ("moderadamente feliz" ziren bere hitzak), baina gaztetan zituen hainbat amets bidean laga zituela azpimarratzen zuen. Urteak urte, amets horiei ekiteko garaia zela zihoen. Bazkalostean kafea hartzeko ohiturik ez daukat baina hereñegun hala egin nuen, ireki berri duten taberna bat estreinatzeko asmoz. Eta hara non aspaldian ikusi gabeko lagun batekin topo egin nuen. Momentu latza bizitzen ari zela kontatu zidan, lan ona, soldata ona baina... depresioa zela, antsietatea zela, kontua da lanerako ilusioa galduta zeukala eta bere bizitza resetatzeko beharra sentitzen zuela. Orduan beste lagun bat etorri zitzaidan gogora, maitasuna bukatu zitzaion honi eta egun batetik bestera bizitza osoko bikotea lagatzea erabaki zuen. Seinale hauen lotura bilatzen ari naiz, zein da bizitzak bidaltzen didan mezua. Keiñu garbia da: inoiz ez da berandu bizitzari irauli bat emateko, proiektu berriei ekiteko. "Moderadamente feliz" hori nahikoa ote den gure buruari galdetzeko.

Domekara arte egongo da martxan Garagardo Jaia Untzagako karpan

Martitzen arratsaldean inauguratu zuten Untzagako karpan Eibar Rugby Taldeak urtero antolatzen duen Garagardo Jaia. Karpako atea jende guztiarentzat zabaldu aurretik, antolatzaileek aurtengo omenduei errekonozimendua egin zieten, aureskua eskainita eta oroigarri baina oparituta. Garagardo Jaia 16 urte betetzen dituen honetan Multikirola egitasmoaren sustatzaileak eta Espainiako Selektioarekin jokatzekeo deitu duten Amairu Mayo, nesken taldeko jokalaria omendu dituzte antolatzaileek.

Garagardo Jaia domekara arte egongo da martxan, gaur 19:00etatik gauerdia arte, bihar 13:00etatik gauerdia arte eta domekan 11:30etatik 23:00etara. Aurreko edizioetan egingakoaren bidetik, garagardo ezberdinak edateko aukera egongo da eta jateko, berriz, saltxitxak, txerri-ukondoa, brotxetak eta aurtengo berritasuna, barazki-biribilkiak eskainiko dituzte. Horrekin batera, karpa girotzeko hainbat jarduera antolatu dituzte: gaur 22:00etatik



23:30era Parrapas taldeak kontzertua emango du; bihar, Unben Eibar eta Ordiziako betaronen arteko partida jokatu eta gero, hirugarren denbora karpan egingo dute; eta domekan Marcan Huella eta Katubeltz animalien aldeko elkarteekin batera, hainbat ekitaldirekin osatutako jardunaldia hartuko du karpak.

Hizkuntzaz eta integrazioaz jardun zuen Jon Maiak

Hamaika Berbaldi egitasmoa seigarren saioa egin zen martitzen arratsaldean Urkizu herri ikastetxean: "Desde Extremadura al bertsolarismo. La historia de una integración"



izenburuko hitzaldia eman zuen Jon Maia idazle, abeslari, bertsolari eta dokumentalistas. Ama Extremadurakoa eta aita Zamorakoa dituen bertsolariak bere esperientzia azaldu ziren saiora joandakoei eta, euskeraz ez dakitenak ere Eibar euskalduntzeko egitasmoa gerturatzeko asmoarekin, gaztelaraz jardun zuen AKE-BAlk eta As Burgas Galiziako Etxeak lankidetzan antolatu zuten berbaldian.

Breaking Eibar dantza txapelketa bihar arratsaldez

Laugarrenez antolatu dute Breaking Eibar, break dance eta all style dantza-txapelketa. Bihar izango da, Txaltxa Zelaian, 17:00etatik 21:00etara bitartean, eta modalitate bereiziko dituzte: "breaking" eta "all style". Txapelketaren harira, Dj Jamal (Paris), Shintoma (Bilbo), Bgirl Movi one (Bartzelona), Bboy Dudu (Frantzia), Bboy Tomy (Eslovenia), Sergio Nguema (Donostia), Lohi (Bilbao) eta Bboy Karajos (Bartzelona) egongo dira, batzuk ekitaldia musikarekin girotzen eta beste batzuk, berriz, epaimahaikide lanetan.

Breaking Eibar vol. 4

Break dancea eta all style txapelketa-Compuesto de break dance y All style

-Breaking 2vs2
-All style 7 to smoke

-Tobia/Iugan Txaltxa

-17:00-21:00
-2018-06-16

DJ

- Jamal
- Jacek Iratxe
- Movic one
- Tomy
- Doudou

Jacek all style:


- Sergio Nguema
- Lohi
- Karajos
- Spideet
- Shintoma

inf: Breaking Eibar



Gastronomia jardunaldiak ERMUAN


Lobiano Gastronomía Elkartek Ermuko jardunaldi gastronomikoen XVIII. edizioa antolatatu du. Ekitaldiak ekainaren 11n hasi ziren, baina oraindik, asteburu honetan, izango da herriko 27 taberna eta jatetxek lehiaketara aurkeztutako pintxoak dastatzeko aukera. Bihar Jardunaldien egun handia ospatuko da, eta hiru ekimen ezberdin hartuko ditu Orbe Kardinala plazak. Batetik, ardo-dastaketa hastapen ikastaroa eskainiko da 12:00etatik aurrera; gero, 13:00etatik 15:00etara, pintxo-lehiaketan parte hartzen duten 5 establezimendutako sukaldariek euren platerak prestatu eta herritarrei eskainiko dizkiete; 18:00etatik aurrera, binakako bakailao txapelketa jokatu da.



Kalez Kale Jaialdia bihar IURRETAN

Akrobaziak, klowna eta magia batzen dituen Kalez Kale Jaialdiaren edizio berri bat antolatatu dute Iurretan. Bihar, zapatua (ekainak 16), Bapatean Zirkoa taldeak "Baserriko porrusalda" ikusizuna eskainiko du 19:00etan Askondo kalean, eta jarraian, 20:00etan, "On the beach" lana aurkeztuko dute Amico Teatrokoek. Haur eta helduentzat plan zoragarria!

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Erundina Otero Nuñez. 96 urte. 2018-VI-1.
- Ricardo Lopez Kortaberria. 87 urte. 2018-VI-6.
- Felisa Aizpiri Arizmendiarieta. 93 urte. 2018-VI-7.
- Isabel Kareaga Fernandino. 95 urte. 2018-VI-10.
- Cesar De Luis De Luis. 46 urte. 2018-VI-11.
- Roberto Arizmendiarieta Yarza. 79 urte. 2018-VI-11.
- Mikel Bollain Muniozguren. 60 urte. 2018-VI-12.
- Leonor Aliende Torrecilla. 89 urte. 2018-VI-12.
- Matilde Carmona Horrillo. 87 urte. 2018-VI-12.
- Blanca Etxeberria Larrañaga. 100 urte. 2018-VI-13.

jaiotakoak

- Abdellah Ain Zaatit. 2018-V-29.
- Salman el Hadan. 2018-VI-6.
- Malen Novoa Astigarraga. 2018-VI-9.
- Nagore Calleja Vidal 2018-VI-9.

farmaziak

- Barixakua 15
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Zapatua 16
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Domeka 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 20
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 21
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	6	9	8	1	2	5	7	3
7	1	8	5	3	4	6	2	9
2	3	5	9	7	6	4	1	8
5	2	6	7	8	1	9	3	4
3	4	7	2	6	9	8	5	1
8	9	1	3	4	5	7	6	2
1	8	2	6	9	7	3	4	5
9	7	4	1	5	3	2	8	6
6	5	3	4	2	8	1	9	7

7		2						5
			9	5	8			
		5		1		6		2
6	8		5		4		7	1
3		1		6		9		
			4	8	2			
	5					4		3

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalitzategia943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 15

SQUASH

17:00. XV. Eibarko Hiria squash saria. Kiroldegian.

DANTZA

19:30. Dantzari Eguna. Untzagan.

DANTZA

20:00. Eibarko Balletaren emanaldia. Coliseoan.

BOXEOA

22:30. Boxeo Gaua. Astelena frontoian.

Zapatua 16

SQUASH

09:00. XV. Eibarko Hiria Squash Saria. Kiroldegian.

TAILERRA

10:00. "Emakume musulmanak, arrazakeria eta sexismoaren aurka". Andretxean (Zezenbide, 9).

JARDUNALDIA

10:30. 34. Extremadurako Herrialde Elkarraldi Jardunaldia. Arraten.

TIRO TXAPELKETA

11:00. San Juan XXVIII. Tiro txapelketa haizezko armekin. Hezkuntza Esparruan.

TAILERRAK

11:00. Simulazio jokoan tailerrak. Untzagan.

BOLO-PALMA

12:00. XXXII. Eibarko Hiria Bolo Palma Txapelketa. Ipuruako bolatokian.

MUSIKA

12:00. Untzaga jubilatutako etxeko abesbatza eta gitarra-taldea. Zuzendaria: Lorea Ojanguren Alzaga. Coliseoan.

DANTZA-TXAPELKETA

17:00. Eibarko IV. Breaking eta New Style Txapelketa. Txaltxa Zelaian.

SEXUBIZI

12:00. Sexubizi babes gunea. Untzagan.

BISITA GIDATUA

17:00. Doakoa, euskeraz.
18:30. Doakoa, gazteleraz. Armagintzaren Museoa.

UMEENDAKO ZINEA

17:30. Doan. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

PUZGARRIAK

18:00. Umeentzako puzgarriak. Urkizun.

ANTZERKIA

19:30. "Femmes", Hortzmuga taldearen eskutik. Untzagatik abiatuta.

MUSIKA

22:00. Shinova eta The Vartools taldeen kontzertua. Untzagan.

AI LAKET!

23:45. Ai Laket! Drogak testatzeko programa. Untzagan.

Domeka 17

TXORIAK

09:00. Eibarko Hiria txori kantarien XIX. Txapelketa. Arraten.

TXIRRINDULARITZA

09:30. 83. San Juan Sari Nagusia. Untzagatik abiatuta.

12:00. Amaiera, Toribio Etxebarria kalean.

JARDUNALDIA

11:30. Animalien aldeko jardunaldia, Marcan Huella eta Katubeltz elkarteekin.

11:30/12:30. Ipuin kontalaria.

11:30/14:00. Marrazki tailerra.

12:00/14:00. Makillaje tailerra.

12:30. Txakur lehiaketa.

14:30/16:00. Paella-jana. Untzagan (karpan).

ARKU TIROA

18:00. Arku tiroa. Txaltxa Zelaian.

MUSIKA

19:30. "Septeto Nabori" taldearen emanaldia. Untzagan.

Martitzena 19

SOLASALDIA

19:00. Eusko Ikaskuntzari omenaldia, "Ondo egindako lana" ekimenaren barruan. Armeria Eskolan.

GIMNASIA

19:00. Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen erakustaldia. Untzagan.

Eguaztena 20

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANBORRADA

19:00. San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.

20:00. Helduen danborradarako entsegua.

Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

Eguena 21

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

PUZGARRIAK

17:00/20:00. Umeentzako puzgarriak. Untzagan.

MUSIKA

19:00. J.B. Gisasola Musika Eskolako kontzertua. Untzagan.

DANBORRADA

19:00. Amañako jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenen entsegua.

20:00. Helduen danborradarako entsegua. Amañako ikastetxean.

TXOSNAK

19:30. Txosnen irekiera: munduko janarien pintxopotea.

22:00. Erromera, Mugi Panderoa taldearekin. Txosnagunean.

MUSIKA

20:00. "Arratsalde bat zinemari", Isabel Laspiurren piano ikasleen emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

Erakusketak

Ekainaren 19ra arte:

- DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLEN IKASTURTE AMAIERAKOA (*Portalea*)


Ekainaren 29ra arte:

- "LARRAÑAGA Y ELORZA, S.A. 100 URTE" (*Armagintzaren Museoa*)

Ekainaren 30era arte:

- AVELINA ROJASEN TXAPEL ERAKUSKETA ETA TAILERRA (*Kokojaten -Calbeton, 8-*)
- MANUEL HERRERAREN ARGAZKIAK (*Klub Deportiboa*)
- JOSE IGNACIO DE CASTROREN ARGAZKIAK (*El Ambigú kafetegia*)
- J.R. LARROCEAREN ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MARKO, atzo 2 urtetxo egin zenduazen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIHER! 8 urte eta aurrera! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IXONE!, gaur 8 urte egitten dozuz-eta. Musu potolo bat danon eta, batez be, Amaiaren partez.



Zorionak, MAULE!, martitzenian 8 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi-haundi bat, famelixa danaren partetik.



Zorionak, JULE, etzi 5 urte egingo dozuz-eta. Ondo baiño hobeto ospatuko dogu! Etxekuen partez.



Zorionak, NORA (atzo, 8 urte) eta IHART (hillaren 20xan, 11). Patxo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, amama PATRO, zure 90. urtebetetzian, birbilloben, billoben eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, amama M^a ANGELES, 19xan 88 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu hain jator eta guapa. Musu bat famelixaren partez.

zineaColiseoan

(2 ARETOAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30

17an: 17:00, 20:00

18an: 20:30

"Los 50 son los nuevos 30"

Zuzendaria: Valerie Lemerrier

(ANTZOKIAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30

17an: 17:00, 20:00

18an: 20:30

"Jurassic World. El Reino Caído"

Zuzendaria: Juan Antonio Bayin



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Sostoatarren kalean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta ganbara. 85 m². Tel. 630-878394.

1.2. Errentan

– Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 679-737762.
– Logela alokatuko nioke lana duen emakume arduratsu bati. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. WhatsApp 657-156254.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Mendaroko Arrats pub-a salgai edo alokagai, jubilazioarengatik. Tel. 943-755058.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-502177.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-246361.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-384944.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-805869.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-894575.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-634777.
– Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztaillean. Tel. 688-802408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta jostintza lanak egiteko. Tel. 604-352707.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gauzez eta ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 689-571882.
– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko edo zamaralan egiteko. Tel. 643-272992.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272994.
– Gizonezkoa eskaintzen da zamaralan egiteko, altzariak muntatzeko eta ehungintzan lan egiteko. esperientzia. Tel. 643-272996.
– Mutila eskaintzen da kamarero, okin edo pizzero moduan lan egiteko. Tel. 643-272978.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldean eta gauzez. Tel. 658-418104.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 631-975260.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulua) eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 602-055627.
– Gizona eskaintzen da igeltsero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 631-371332.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 617-680071
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 643-096845.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Tel. 632-841284.
– Neska eskaintzen da lan egiteko (pisuan edo ospitalean). Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-657380.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 666-808479.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-891709.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 646-821678.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-565350.
– Neska eskaintzen da pisuak, pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 698-406654. Marcia.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-571098
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (lokalak, pisuak), nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 666-156651.
– Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztaillean umeekin jardueraren desberdina egiteko. Esperientzia. Tel. 681-330881.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 679-737762. Carmen.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-624304.
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 688-495388.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 619-334381.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 642-099392.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-098995.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (tabernak, sukaldeak, pisuak, pegorak) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-426847.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 682-319739.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 8 urteko esperientzia. Tel. 674-480259.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 651-508694.

4.2. Langile bila

– Monitorea behar dira abentura jarduerarako (paintball). Tel. 660-450245. Ainhoa.
– Autonomia behar da, furgonetarekin, abuztuan paketeak banatzeko Eibar inguruan. Tel. 616-642631.
– Ilea-paintzailea behar da Eibarko ilea-paintzari batean. Esperientzia eta estetikazagupenak eskatzen dira. Tel. 943-567232.
– Kamareroak behar dira asteburuetarako Arrateko Tiro Pichon-en. Bidali curriculum-a. Postakutxa 46. 20600. Eibar.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Bateria klaseak ematen ditut. Tel. 669-649535.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bizikleta salgai 12-16 urte bitarteko gaztearentzako. Gutxi erabilia. 100 euro. Tel. 650-022371. Itziar.
– Ibilgailuaren atzeko atean bizikletak eta matrikulak eramateko salgai. Tel. 666-241667.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



ego-gain, 6

KONTENT

943 11 86 91

3.

urteurrena

**Kafetegia / Restaurant
Pintxoak / Pub / Taska**



...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**



- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.eus



EIBARROOMS Auto Check-in ekimen berria da gure herrian. Horrez gain, inplementatu duten sistema ere berria da Debabarrena osoan.

Zabaldu berri duen 12 LOGELAKO OSTATUA moderna, eroso eta praktikoa da.

Ego Gain kaleko 17. zenbakian dago, Kontent tabernaren parean: Eibarko herriaren erdigunean dago, bus, tren eta taxi geltokien alboan. Ostatu horren berezitasunetako da ez duela harrerarik: dena internet bidez egiten da. Bezeroak erreserba web orrialdean egin dezake (www.eibarrooms.com) eta EIBARROOMSetik berarekin kontaktuan jarriko dira, email bitartez, hotelerara sartzeko kodigoak emateko. **Bi kodigo** daude, bata sarrerako atearentzat eta bestea logelarako. Horretan datza Auto Check-in sistema: Check-ina etxetik eginda ekarriko dute bezeroek. Gaur egungo garaiotan denborak balio handia duenez, EIBARROOMS-ek bezeroei arreta bizkorra eta ezinhobea eskaintzea ipintzen du beste edozeren aurretik.

12 logela ditu ostatu honek:
8 bi lagunendako eta beste 4 bakarkakoak.
Logela guztiak Ego Gain kalera ematen dute; beraz, argi askokoak dira. Logela bakoitzak bere komun pribatua dauka eta baita lan egiteko txoko txiki bat ere. EIBARROOMS-eko zuzendariak dioenez, *“proiektu honekin Eibarren hutsik zegoen merkatu-nitxo bat betetzea bilatzen dugu. Gure bezerorik garrantzitsuena empresak dira eta eurei nahi diegu zerbitzua eskaintzea batez ere: bisitan datozen langile, bezero, komertzial eta abarrei ostalua eman nahi diegu, ahaztu gabe asteburuetan Eibar bisitatzera datozen guztiei”*.

reservaseibarrooms@gmail.com

